

PRESIDENTEA
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALEKO UDALBATZA OSOAK 2016ko
ABUZTUAREN 29an EGINIKO EZOHIKO BILKURAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

José Antonio Bartolomé
Montse Angulo
Susana Martín
Lauren Uria
Esteban Hernando
Nerea Goti

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamaseiko abuztuaren hogeita bederatzian, bederatzia eta hogeita hamarrak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ezohiko bilera egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua, eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. M^a Ascensión Hormazabal Meabe Artziniegako Udaleko idazkari eta kontu-hartzaile andreak lagundu ditu, hura izendatu baitu Arabako Foru Aldundiak, egitekoak pilatzeagatik.

BERTARATU EZ

DIRENAK:

Iñigo Pinedo
Josu Artetxe Arana
Iraida Saenz de Lafuente

IDAZKARIA

M^a Ascen Hormazabal

Alkate jaunak ongi-etorria eman die Udalbatzako kide guztiei.

1.- 2016ko irailaren 25eko Eusko Legebiltzarreko Hauteskundeetako mahaiak eratzeko mahaiburuak eta kideak izendatzea.

Ez da gaiari buruzko ezer esan, eta bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Lehendakariak 2016ko abuztuaren 1ean emandako 23/2016 Dekretua, abuztuaren 2an EHAA-n argitaratu zena, Eusko Legebiltzarra desegiteari eta 2016ko irailaren 25erako hauteskundeetako deialdia egiteari buruzkoa.

IKUSI DA.- Hauteskunde Araubideari buruzko ekainaren 19ko 5/1988 Lege Organikoaren 26. artikulua ezartzen du hauteskunde-mahaiak eratzea udalen eskumena dela eta Eremuko Hauteskunde Batzordeek gainbegiratu behar dutela.

IKUSI DA.- Hauteskunde Batzorde Nagusiak aipatutako artikulua interpretazio-dotrina sendoa ezarri du; beraz, adierazten dugu zozketa egiteko eskumena Udalbatza Osoarena soilik dela.

AINTZAT HARTU DA.- Mahai bakoitzeko burua eta kideak zozketa publikoaren bidez hautatzen dira, dagokion mahaiko hautesleen zerrendan ageri diren pertsona guztien artean.

IKUSI DA.- Arestian azaldutakoa. Bestalde, aipatutako zozketa egin da.

Udalbatza osoak, aho batez, hau **EBAZTEN DU**:

LEHENENGOA.- Mahaiko buru eta kide (titular eta ordeko) izendatzea I. eranskinean zerrendatutakoak.

BIGARRENA.- Izendapenaren berri ematea interesdunei, hauteskunde-egutegiaren arabera, 2016ko irailaren 1etik 3ra bitartean. Jakinarazpenarekin batera, mahaikideei euren funtzioei buruzko argibideen manuala emango zaie, Hauteskunde Batzorde Zentralak gainbegiratutakoa.

Hauteskunde-mahaietako buru eta kide izendatutakoek zazpi eguneko epea izango dute (2016ko irailaren 4tik 10era arte) Tokiko Hauteskunde Batzordearen aurrean kargua hartzea oztopatzen dien kausa arrazoitzeko eta dokumentatzeko.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du bederatziak eta berrogeita bost minutu direnean, eta, aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamaseiko abuztuaren hogeita bederatzian.

OE
ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Izpta.: Gentza Alamillo Udaeta.

Izpta.: M^a Ascensión Hormazabal Meabe.